

# *BAILITZAN, BAILUEN*

## tankerako esapideak



Baliokideak ote dira *balitz bezala* eta  
*bailitzan*?

Hona zer dioen Euskaltzaindiako Gramatika Batzordeak auzi horretaz, tradizio idatzia aztertuta:

“Egia da *balitz bezala* eta *bailitzan* baliokidetzat hartu dituztela idazleek, baina *bailitzan* gisakoak ez dira arkaikoak, aski berriak baizik, eta, gainera, itxura guztien arabera, gramatika legeen kontra eratuak. Horrenbestez, bazter utzi beharrekoak ez badira, bultzatzekoak ere ez dira.”

Ikus bedi *EGLU-V (Mendeko perpausak-1)*, 1999: 370-371.


Euskaltzaindiako Gramatika Batzordeak esana gogoan izanik, hona gure gomendioa:

Testu teknikoetan **BALITZ BEZALA/LEGEZ** gisako egiturak erabili, eta **BAILITZAN** eta **BAILUEN** tankerakoak saihestu.

**Hidroxilo:** *iz.* Erradikal monobalente negatiboa (-OH), oxigeno atomo batez eta hidrogeno atomo batez osatua. Alkoholen eta hidroxidoen ezaugarri da, eta azido organikoetan ere agertzen da. Erreakzio kimikoetan, atomo bakar bat **balitz bezala** jokatzen du. *Es:* Hidróxilo *FR:* Hydroxylé *EN:* Hidryc *Arloa:* Kim.

[?bailitza(n)]

Ugarteburu, I. eta Igerabide, J. K. (Zuz.). *Erizaintzako hiztegia*. Donostia, 2005 (EHUko Euskara Zerbitzua. Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola).




Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Maiz esaten da antropologoek ukatu egin nahi dietela herri indigenei aldatzeko aukera, eta horren ordeztu barruti aldagabeetan bahitu nahi dituztela, zoologikoko espezieak **balira bezala**.

[?bailira(n)]



Davis, Wade: *Argia munduaren ertzean*. Bilbo: EHUpress, 2009.  
(Euskaratzailea, Iñaki Iñurrieta) (Azala eta diseinua, Antton Olariaga)

EHULKUren aholkua

**BAILITZAN, BAILUEN**

Euskara Zerbitzua

6

Are gizarte indigena txikien kinka larriarekin bat egiten dutenen artean ere, etsipen-giroa dago, kultura horiek desagertzera kondenatuta **baleude bezala**, inguruabarrek historiatik kanpo utzi eta bizitza modernoaren aurrean aurrerapen geldiezinetik baztertu **balituzte bezala**.

[?baleude(n)] [?balituzte(n)]



Davis, Wade: *Argia munduaren ertzean*. Bilbo: EHUpress, 2009.  
(Euskaratzailea, Iñaki Iñurrieta) (Azala eta diseinua, Antton Olariaga)

Laborategian egindako esperimentu hauetan ikusmen-sistemak forma eraikiko **balu bezala** gertatzen dira gauzak: aurkezpena luzatzen baldin bada, ezagutzeko gai bilakatzen da forma.

(?bailuen)

Aumont, J.: *Irudia*. Bilbo: EHU, 2004 (euskaratzailea, J. Zabaleta).





Arratoiak janari pilatik aurrera igarotzen dira, janari pilarik ez **balego bezala**. Gutxi gorabeherako nabigazio bidezko ibilbidea egiten dute arratoiok janari bila, eta oharkabean pasatzen zaizkie ingurunean izandako aldaketa handienak ere.

(?bailegoen)



Hauser, Marc D. (2008): *Gogo basatiak*. Bilbo: EHU, 2008 (euskaratzailea, Irene Aldasoro)

Hirugarren pertsonakoak izaten dira gehienetan halako esapideak. Berez, zilegi izan behar lukete gainerako pertsonak darabiltzaten adizkiek ere. Baina, hala, forma okerrak sortuko lirateke:

**\*bainintzan, \*baizinan, \*baikinan**

Eta, baita ere, beste testuinguru batean beste zerbait direla ere pentsa genezakeenak, kausazkoak, esaterako:

**#baizintudan, #baininduzun.**

Gramatika Batzordeak puntu horretaz esana, hona:

**"Forma arazotsuak dira eta gainera tradizio urrikoak. Autore berrietan agertzen dira, ez zaharretan."**

Ikus bedi *EGLU-V (Mendeko perpausak-1)*, 1999: 371.